

# 5

## Auzoko Egitasmoa, gerturapen bat. Euskara eta aniztasuna abiapuntu dituen egitasmo pilotuen gaineko azterketa

**Mikel Ozaita**

*Gizarte Langintzan diplomatua eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua*

[gipuzkoa@topagunea.org](mailto:gipuzkoa@topagunea.org)

Sarrera-data: 2011-10-27 | Onartze-data: 2011-12-22

**Laburpena.** “Auzoko Egitasmoa” euskara, aniztasuna eta herritarrak barnebiltzen dituen egitasmoa da eta herritarrak euskarara gerturatzeko helburua du. Artikulu honen xedea, “Auzoko Egitasmoa, gerturapen bat” ikerketako edukiak eta ondorioak azaleraztea da. Ikerketaren landa lana 2010eko irailetik abendura burutu zen Agurainen, Bergaran, Berriatuan, Donostiako Antigua auzoan, Orion eta Zeanurin. Egitasmo hau parte hartzaileek euskararekiko duten gertutasunaren edo urruntasunaren baitan egitura-tzen da eta bi profil aurreikusten ditu: Auzotarrak (egunerokotasunean euskaraz bizi diren herritarrak) eta Auzokideak (euskara ez dakiten herritarrak). Auzokok bi profil horien arteko euskarazko harreman pertsonalak bultzatzen ditu, euskaraz jakitea kohesioa eta berdintasun soziala bultzatzeko faktore garrantzitsua dela nabarmenduz. • **Hitz-gakoak:** kultur aniztasuna, hizkuntza aniztasuna, hizkuntza jarrerak, harreman sareak.

**Abstract.** The “Auzoko” Project, an approach. Study of pilot projects whose starting point is Basque and diversity. The “Auzoko” Project is one that incorporates Basque, diversity and citizens and which aims to bring citizens closer to Basque. This paper sets out to deal with the contents and conclusions of the piece of research “Auzoko Project, an approach”. The field work in the research was done between September and December 2010 in the Basque Country’s towns of Agurain, Bergara, Berriatua, the Antigua suburb of Donostia-San Sebastian, Orio and Zeanuri. This project is built up around the closeness or distance with respect to Basque that the participants have and two profiles are anticipated: Neighbours (citizens who live in Basque in their everyday lives) and Neighbourhood Residents (citizens who do not speak Basque). The “Auzoko” project encourages personal relations in Basque between these two profiles, by stressing that speaking in Basque is an important factor in promoting social cohesion and equality. •

**Key words:** cultural diversity, language diversity, attitudes towards language, networks of relationships.

## AUZOKO, EUSKARA ANIZTASUNEAN

Auzoko Egitasmoa euskara, aniztasuna eta herritarrak barnebiltzen dituen egitasmoa da. Hizkuntz egitasmoa da, herritarrak euskarara gerturatzeko helburua duena. Aniztasuna du oinarri, Euskal Herrian hizkuntza eta kultura aniztasun errealitate baten aurrean gauden heinean. Eta herritarrak, herritarren artean harremantzeko topaguneak sortzen ditu, kulturen arteko elkartrukeak bultzatuz. Azken batean, hizkuntz aniztasun honetan, euskara herritarren arteko komunikazio eta kohesio hizkuntza izan dadin ahalegintzen da. Egitasmo pilotuak, Euskal Herriko sei herritan jarri dira martxan; Agurainen (Araba), Bergaran (Gipuzkoa), Berriatuan (Bizkaia), Donostiako Antigua auzoan, Orion (Gipuzkoa) eta Zeanurin (Bizkaia). Auzoko Egitasmoa Topaguneak, Euskara Elkar-teen Federazioak eta UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eginiko hausnarketa batetik abiatuta sortutako egitasmoa da.

Artikulu honen xedea, *Auzoko Egitasmoa, gerturapen bat* ikerketako edukiak eta ondorioak azalaraztea da. Ikerketaren landa lana 2010ko irailetik abendura bitarte burutu da, egitasmoa martxan zegoen sei herriak oinarri hartuz. Ikuspegi antropologikoa erabili da, batez ere teknika kualitatiboek baliatuz. Horretarako, diseinu txostena, dokumentazio lana eta etnografia (hiru behaketa partehartzaile eta sei elkarrizketa; herrietako dinamizatzaileei) erabili dira analisisia egin eta ondorioak ateratzeko. Ikuspegi holistikoa aintzat hartu da, Auzoko Egitasmoaren gerturapen bat soilik eginez.

Auzoko Egitasmoa gabezia batetik sortutako egitasmoa da, hizkuntza harrera egituratu gabe dagoela alegia. Euskararen berri ez dela ematen, zein egoeratan dagoen ez dela azaltzen. Gabezia hori, modu nabarmenagoan herri eta auzo euskaldunenetan azaltzen da. *“Inork ez du esplikatzen herri horietan euskararik gabe zaila izango zaiela herri-bizitzan beste bat gehiago izatea, muga guztiak eraistea”* (UNZALU/ELKORO 2010:5). Auzoko herri horiei begira diseinatu bazen ere, eremu ez hain euskaldunetan ere ari da froga modura, Agurain lekuko.

Migrazio mugimendu berriek, euskarara hurbiltzeko tresna berriak antolatzekeo premia sortu du Auzoko. Premia hori izan da Auzoko sortzearen akuilu, baina beharrak aurretik bazeuden. Egoerak konplexuak dira, eta euskararen egoera oraindik eta konplexuagoa, hizkuntza gutxiagotu bat den seinale. Auzokok ez dio inori euskararen egoeraren zama ezarri nahi, izan ere, faktore anitz daude euskararen egoeraren atzean; politikoak, ekonomikoak, kulturalak, aurreko migrazio mugimenduak eta abar. Beraz, ez da zilegi azkena etorri denari zama bere gain ipintzea.

**Auzoko Egitasmoa gabezia batetik sortutako egitasmoa da. Euskararen berri ez dela ematen, zein egoeratan dagoen ez dela azaltzen. Gabezia hori, modu nabarmenagoan herri eta auzo euskaldunenetan azaltzen da.**

**Parte hartzaileek euskararekiko duten gertutasunaren/hurruntasunaren baitan egituratzen da Auzoko.**

Egitasmo ireki baten aldeko apustua egin da, pertsona oro sartu ahal izateko moduko egitasmo bat. Horrexegatik, euskara jartzen da erdian hizkuntza egitasmo honetan. Parte hartzaileek euskararekiko duten gertutasunaren/hurruntasunaren baitan egituratzen da Auzoko. Bi profil aurreikusten ditu Auzokok, Auzotarrak eta Auzokideak. Auzotarrak, egunerokotasunean euskaraz bizi diren herritarrek osatzen dute. Auzokideak berriz, euskara ez dakiten herritarrek osatzen dute, euskaratik urrun bizi direnak.

“Etorri berriez gain, herri euskaldun askotan euskararengandik urrun bizi diren asko ez dira etorri berriak. Eta ez litzateke logikoa ezta bidezkoa izango azkena heldu denari mugatzea hizkuntzara hurbiltzeko sortutako egitasmo bat. Logikoa ez litzatekeen bezala euskararengandik urrun bizi diren beste herritar guztiei Auzoko bezalako egitasmo baten parte hartzeko aukera ukatzea”.<sup>1</sup>

Beraz, “hizkuntzaren ikuspuntutik kontzeptualizatutako etorri berriez ari garenean berdin du jatorriak, euskararekiko hurbiltasun/urrun-tasunaz besterik ez gara ari” (UNZALU/ELKORO 2010:5). Profil horiek dinamikoak dira gainera, “epe luzera begira, egitasmoaren arrakastarik handiena honakoa litzatekeelako: Auzokide gisa sartu zena (euskaraz tutik ere jakin gabe) urte batzuen buruan Auzotar gisa aritzea Talderen baten”(UNZALU/ELKORO 2010:9).

Baina bi profil hauetako herritarrak zertarako harremanetan jarri? Zein dira Auzokoren helburuak?

- a) Euskaratik urrun dauden herritarrak euskarara hurbildu nahi ditugu.
- b) Herritarrak herriko hizkuntza aniztasunaren jabe egin nahi ditugu.
- c) Hizkuntza desberdinetako herritarrak harremanetan jarri nahi ditugu, norberarena aintzat hartuta, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza dela eta etorkizunera begira bide horretan sakondu nahi dela oinarritzat hartuta.
- d) Hizkuntzatik abiatuta zeharka elkarbizitzarako helburu garrantzitsuak jorratu nahi ditugu: elkar eza gutza, hurbilketa, aurreiritziak eta beldurrak gainditzea, elkarren aitortza...

Beraz, hizkuntza egitasmo bat bada ere, euskarak zentraltasuna hartzen badu ere, bestelako helburuetan eragin nahi du Auzokok.

“Herrixen bizi dan jente ezberdinen topaketa bat ahalbidetuko dauena, nahastie, kultura harreman bat, hori dana euskeraz izango dan gune bat”.<sup>2</sup>

Egitasmo sozial bat da, harremanak sortzen dituen, euskaraz komunikatzen dena, naiz eta zailtasunak izan. Gerturapen bat ematen da eta parte hartzaileak ere inplikatzeko dira.

“Harremanak landu, bi aldetatik, Auzotar eta Auzokideen artian eta euskera erabiltzen, euskeraz harreman hauek mantentzeko eta gogoia pizteko ba jarraipen bat emateko, kulturara hurbiltzeko”.<sup>3</sup>

## 1. EUSKARAREN EGOERA ETA TESTUINGURUAK

Euskararen egoerak eta testuinguruak aintzat hartzea ezinbestekoa da egitasmo bat martxan jartzeko eta berau aztertzeko. Euskararen egoera (hizkuntza kulturako osagai garrantzitsuenetako bat bezala) kultura gutxiagotu baten baitan ulertu behar da. Izan ere, Euskal Herrian dauden beste bi hizkuntza nagusien (frantsesa eta gaztelania) menpeko da, nahiz eta bertako/berezko izan.

Auzoko martxan jarri den herri eta auzoei dagokionez, bi mailatan bana ditzakegu, izan ere, bizi dugun errealitate soziolinguistikoa asimetrikoa da. Batetik, biztanleen %70 baino gehiagok euskara dakitenak Bergara, Berriatua, Orio eta Zeanuri (denak UEMA herriak, egun Zeanuri ez). Eta bestetik, ezagutza maila txikiagoa dutenak Donostiako Antigua eta Agurain. Datu demografikoak ere garrantzitsuak dira, herriaren taimainak asko baldintzatzen baitu. Beraz, herri euskaldun/ez hain euskaldun eta hiri/herri ardatzak kontuan hartu behar dira, jakinik herri edota auzo bakoitzaren errealitateak partikularrak direla.

Maila indibidualera jaitsiz, hiztunek ere zeresan handia dute honetan guztian. Izan ere, euskaldunen hizkuntza ohiturek zeresan handia izan dezakete, euskaldun askok eta askok ezezagunari zuzenean erderaz (gaztelaniaz edo frantsesez) egiten diogu eta:

“Gainera elebidunak garenez, azkenean... harakina adibidez, nirekin euskaraz egingo du, baina kanpotarrekin erderaz. Orduan haiek horretaz konturatzen dira, igual entzuten digute guri euskeraz... neri gertatu zait okindegian... bertako nekarekin erderaz eta gero gure artean, euskalduna bada ba euskaraz hasten gara. Jendea horretaz kontzientea da ezta, baina bueno beharbada gure errua da”.<sup>4</sup>

## 2. KULTURA ETA HIZKUNTZA ANIZTASUNA

Auzokok kultura eta hizkuntza aniztasuna hartu ditu lan egiteko lanabes. Izan ere, etorkin edota immigrante gisako kontzeptualizazioak, na-

**Epe luzera  
begira,  
egitasmoaren  
arrakastarik  
handiena  
honakoa  
litzatekeelako:  
Auzokide gisa  
sartu zena  
(euskaraz tutik  
ere jakin gabe)  
urte batzuen  
buruan Auzotar  
gisa aritzea  
Talderen baten.**

hasgarriak eta hertsia dira. Migrazioa kultura eta hizkuntza aniztasunerako oso faktore garrantzitsuak dira, baina ez du errealitate osoa ordezkatzeko. Zein da immigrantea? Hirugarren mundutik datorren pobrea? Europarrak ez dira immigranteak? Edota espainiar zein frantziar estatuetatik etorritakoak? Guztiak dira immigrante edo etorkin, baina pertsona hauen seme alabak berriz ez. Ijitoek ere kultura propioa dute eta Euskal Herrian mendeetan bizi izan dira. Horrexegatik kontzeptu gisa, kultura aniztasuna erabiltzeko hautua egin da. Gainera, kontzeptu irekiagoa den neurrian, *gu eta besteak* dikotomia elikatu beharrean, euskaldunak ere barne biltzen ditu. Horrela, euskaldunok ere eragin dezakegu.

Kultur aniztasuna fenomeno konplexua bada, are konplexuagoa da gurea bezalako testuinguruetan. Izan ere, euskal kultura eta euskara, aurretik aipatu modura, kultura eta hizkuntza gutxiagotuak diren neurrian eta beste bi kultura nagusiren (espainiarra eta frantsesa) mende biziraun behar duen neurrian, are eta konplexuagoa den egoeran gaude. Azken urteetan gainera, beste kultura eta hizkuntza askotariko pertsonak etorri dira gurera. Beraz, kultur aniztasun oparo baten aurrean gaudela baieztatu behar da.

Kultur aniztasuna gizateria bezain zaharra da, eta migrazio mugimenduek eta kolonialismo prozesuek eragindakoa izan da batez ere. Euskal Herrian historikoki migrazio mugimendu handiak izan ditugu eta euskaldunok ere beste herrialdeetara migratu izan dugu (Ameriketara esaterako).

Historia hurbilari dagokionez, XX. mendea eta hasi berri dugun XXI. mendea aintzat hartzen baditugu, Euskal Herrira etorritako bi migrazio aldi bana ditzakegu. Bi migrazio mugimendu hauek guztiz ezberdinak dira, baina fenomeno aztertzeko kontuan hartu behar dira nahitaez. “Migrazio zaharra” XX. mende erdialdean Espainiar zein Frantziar estatuetatik etorritakoek osatzen dute, kopuruz migrazio mugimendu handiena da:

“Gaur egun, Euskal Herriko biztanleria guztiaren %20 inguru Espainiako eta Frantziako estatuetan jaiotako immigranteak dira, eta horiek immigrante guztien %80 baino gehiago dira...”<sup>5</sup>

Euskaratik urrun bizi den oro izan daiteke Auzokide, bertan jaioak, espainiar zein frantziar estatuetatik etorritakoak, Europatik etorritakoak, nahiz munduko beste herrialdeetatik etorritakoak. Migratzeko arrazoiak anitzak izan daitezkeen moduan, lege marko eta baliabide aldetik ere aniztasuna dago. Auzokok aurretik aipatu gisa, azken hamarkadan gure

herrira etorri diren kultura eta hizkuntza aniztasuna aldeko faktore gisa probestu nahi du.

“Hizkuntza - aniztasuna hori euskararen, hizkuntza gutxituaren, aliatu gisa ulerturik, aldeko faktore bihurtzen saiatuko gara”.<sup>6</sup>

Aliatu gisa hartzen diren neurrian, beraien testuinguruak aintzat hartzea ezinbestekoa da. Izan ere, asko eta askok eskubide urraketak eta desberdintasun soziopolitikoak pairatu behar dituzte, eta hauek kontuan hartzea ezinbestekoa da.

### 3. HERRITARRAK ETA HARREMANAK

#### I

Geroz eta indibidualistagoa den jendarte honetan, beste kulturetako herritarrekin dagoen harremanari dagokionez, esan daiteke ez dela oso oparoa. Modu pertsonalean harremanak daudela ezin uka, baina jendarte mailan, orokorrean, bide horretan asko dago egiteko oraindik:

“Gero guk, hemengook ere ez dakit laguntzen dogun askorik, osea nik uste dot eskola munduan eta mugitzen dan jendie nahiko... nik ikusten dudanagatik ba, gurasoen artien eta sortzen da harreman, azkenean umeak erdien badauz, ... baina beste maila batzuetan, gaztien artien eta holan nik ez dot uste... ez gara harremanduten, ez dogu ezer egiten lagunduteko ez eta harremanduteko.... Nahiko albo batera geratuten gara...”.<sup>7</sup>

Beraz, harremantzeko gune edota uneak badauden arren, oso mugatuak dira. Haur txikien gurasoek, hezkuntza zentroaren bueltan harremanak sortzeko gune egokiak izaten dira. Baina, oro har zein gune edota une daude beste kulturetako pertsonekin harremantzeko?

Puntu honetan beraz, hipotesi bat planteatzen da; *jendartean oro har kultura desberdinetako pertsonekin ez dago harreman bide sakonik*. Hipotesi hau baieztatu beharko litzateke, naiz eta dinamizatzailleen pertzepzioak kontuan hartuz, zalantzak nahiko argitu:

“Bai badau, gehixen bet parean suertatzen daun pertsonekin eta ba hor sortzen dien harremanekin, izan leike euskeraz edo gazteleraz edo, bai, harremana badau, igual ez kolektibo moduan, baino pertsonalki harremana badau”.<sup>8</sup>

Beraz, alor horretan sakontzea ezinbestekoa da.

**Kontzeptu gisa,  
kultura  
aniztasuna  
erabiltzeko  
hautua egin da.  
Kontzeptu  
irekiagoa den  
neurrian, gu eta  
besteak  
dikotomia  
elikatu  
beharrean,  
euskaldunak ere  
barne biltzen  
ditu.**

#### 4. AUZOKO EGITASMOA, TEORITIK PRAKTIKARA

I

“Guztia ezagutu nahi dut. Hemengoek duten guztiaz jabetu nahi dut, eta,aldi berean, guk daukaguna haiekin partekatu. Auzokok aukera hori ematen digu”.<sup>9</sup>

Hori da Auzokoren funtsa, euskara erdigunean jarrita, bi noranzko harremanak sortzeko bidea irekitzea.

“Proiektua ondo dau, batez ere harremanduteko gugaz, gure kultura ezagutetako apurke apurke eta era berean eurek azalduteko euren kultura bebai, euren ohitura bebai. Banatu ahal dozuz gauze asko (...) eta interesanteena da euskeraz egiten dozule. Netzako ideia ona da, azkenean Berbalagun proiektuan dira 3-4 pertsona... ta nahiko imtimoago moduan, hau sortu ahal da kuadrila antzeko giro bat”.<sup>10</sup>

Auzoko taldeek herritarren artean “zubi” hizkuntza euskara izan dadin bultzatzea dute xede. Hau da, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza izan dadin bultzatzea. Astean behin edo birritan, modu egituratu batean, Auzotarrak eta Auzokideak biltzen dira eta egitasmoaren dinamizatzailearen laguntzaz dinamika ezberdinak burutzen dira euskaraz:

“Bertan dinamika errazen bidez, eta hizkuntza aniztasuna azpi-azpian ezarrita, euskarazko oinarri-oinarrizko edukiak landuko dira, errepikapenaren eta jolasaren bidez”.<sup>11</sup>

Horretarako, oinarri batzuk aintzat hartzen dira:

Auzoko taldeak irekiak izatea, bi zentzutan; euskaratik urrun bizi direnenei dagokionez; “Euskaraz ez dakien edonorentzat diseinatutako Hizkuntza-Hurbilpen prozesua da” (UNZALU/ELKORO 2010:75) Eta irekia, parte hartzaileen eremu pertsonalari dagokionez:

“Auzoko talde hauek sarbide libreko eremuak izango dira, non norberak ez duen esplikaziorik eman beharko bere jatorriaz, bere usteez, bere kulturaz, bere bizitza pribatuaz”.<sup>12</sup>

- Parte hartzailea izatea, modu aktiboan eta salbuespenik gabe:

“Zuzeneko parte hartze aktiboa bultzatu nahi dugu hasi lehen urratsetik eta azken fasera arte. Legezko egoerak gora-behera, generoa gora-behera, egi-

tasmoan parte hartzen duen pertsona ororen gizarte aktibazioa bilatzen dugu, horrek autoestimu eta ziurtasun pertsonala indartuko dituela sinisturik”.<sup>13</sup>

- Kultura aniztasunaren baitan, beste kulturetako pertsonen kulturak eta hizkuntzak aitortzea:

“Euskal hiztunak gure inguruan ditugun hizkuntza berrien gainean duen ikuspegia landu nahi dugu, haren aitortza jorratuz etorri berriak euskara onartzeko eta ikasteko bide erangikor gisa”.<sup>14</sup>

Beraz, aitortza lantzea bide estrategikoa da Auzokorentzat. Izan ere, aitortza oinarri-oinarrrian dago bide berriak irekitzeko garaian:

“Gure egitasmoaren diseinuak norberaren hizkuntzaren aitortzatik abiatuta egiten duenez jauzia, bizikidetzan, elkartrukean, komunikazioan oinarritzen du bere egituratze guztia”.<sup>15</sup>

- Harreman bide horizontalak sustatzen dira:

“Herritarren arteko harreman sare horizontalak landu eta osatzen lagundu nahi ditugu, elkar ezagutzarako (hizkuntzen aldetik ikusita, baina baita orokorrean herritar autonomo eta parte-hartzaile gisa ere) biderik onena delakoan”.<sup>16</sup>

- Horrela Auzokon parte hartzen duten guztiak, subjektu aktibo dira, hartzaile eta emaile funtzioak bete ditzakete eta:

“Bestien kultura, ohitura, hizkuntzak eta ezberdinek egiten jaku baina haintzakotza osua. Ezberdintasun horiek ontzat hartuta, gauza on bezala, ibili daigun gure artian ba euskera, komunikatzeko, bakoitzari kendu gabe daukena, bakoitzak berea aportatuz”.<sup>17</sup>

- Berdintasunean eta horizontaltasunean oinarritutako egitasmoa denez, Auzoko taldeetan parte hartzaileen arteko orekak zaintzea garrantzitsua da. Auzotar eta Auzokideen arteko orekak zaintzea eta genero arteko orekak zaintzea ere ezinbestekoa da.

Oinarri hauek barnebiltzeak ahalbidetzen dute Auzoko taldeak sortu eta mantentzea.



**Auzoko taldeek herritarren artean “zubi” hizkuntza euskara izan dadin bultzatzea dute xede. Hau da, euskara komunikazio eta kohesio hizkuntza izan dadin bultzatzea.**

**Eskola “eredu tradizionalari” jarraitu beharrean, ludikotasunari eta “eredu informalean” erdiratzen da. Jolasak daude erdian, guztiok jolasten dakigula oinarrian hartuz.**

## 5. ZER EGITEN DA AUZOKO TALDEETAN?

I

“Horrelako proiektuak sekulakoak iruditzen zaizkit. Ez da eskolara joatea. Jokoak dira oinarria, eta horrek hitz egitea eta elkar ezagutzea errazten du. Guztiok dakigu jolasten. Oso ondo pasatzen dugu. Ez dut behin ere huts egin nahi izaten”.<sup>18</sup>

Esaldi honek ondo definitzen du Auzokon egiten dena. Eskola “eredu tradizionalari” jarraitu beharrean, ludikotasunari eta “eredu informalean” erdiratzen da. Jolasak daude erdian, guztiok jolasten dakigula oinarrian hartuz:

“Ni nabil dinamikak sortu ta sortu. Batez ere joera da, dadoak, mahai jokoak. Gero ikustezu, esaldiak eta hola... esaldietan ez naiz gehiegi sartu, ze jende berria nola datorren.... Batzuk ia mamatuta daukea baino bueno. Ta ezezkoa sartu nun behin, aurreratzeko. Gero landu deu, koloreak, zenbakiak ta lengoan sartu nien ya jantziak. Dena irudi bidez, irudiak eta koloreak beti daude eta zenbakiak...”.<sup>19</sup>

“Egin genuen plano bat etxe batena eta fitxekin, ba zu zea gorria eta zu urdina eta bakoitza leku batean... Non zaude? eta ni komunean nago, non dago bera? Bera salan dago. Hori idatzita eta gero igual aulkia mahaia, eh aulkia mahaiaren ondoan dago. Ezkerra eskuin...”.<sup>20</sup>

Beraz, dinamika xumeak proposatzen dira. Dinamika xumeak, errazenetatik hasi eta ibilian-ibilian zailtzen joango direlako. Bide batez, hiltunen aitortza eta euskara gerturatzeko parte hartzaileen ama hizkuntza eta euskara barne biltzen dituen poltsikoko hiztegiak sortu eta zabaldu dira Auzokideen artean. Horrela, dinamiketan erabiltzeaz gain, Auzoko taldeetatik aparte euskara praktikatzeko euskarri fisiko bat izan dute erabilgarri.

Entzumena lantzea ezinbestekoa da hizkuntza barneratze prozesuan, eta errepikapenaren bitartez, euskara murduskatuz, pixkanaka pixkanaka euskarara hurbiltzen joatea da helburua. Gainera, dinamikek azalpen handiegirik ez izatea komeni da, komunikazio zailtasunak sortu baititzake:

“Espelikazio handiegirik ez dutela behar, azkenean jokuk konplikatu bat egiten bazu gero espelikatu egin behar da. Regla asko baldin badaude...”.<sup>21</sup>

Azken batean, dinamikak oinarri harturik ondo pasatzeari garrantzia ematen zaio, horrela euskarara hurbiltzea ludikotasunarekin lotzen da ekintza positibo gisa:

“Ondo pasatzea inportantea da ze gogoia ematen dizu bueltatzeko ez, ez dakit gogorra eta astuna gauza serioak be... Zeozer soltatzeko, ulertzeko eta... Auzokok merezi du etortzen badira, zeozergatik izango da eta auzotarrak ere joaten badira”.<sup>22</sup>

“Barre handiak egin ditugu”.<sup>23</sup>

Gainera, parte hartzaile guztiek (Auzokideek eta Auzotarrek) ondo pasatzea garrantzitsua da egitasmoak arrakasta izateko:

“Auzotar batek esan ziten... eske netzako risoterapia modukoa da”.<sup>24</sup>

Auzotarren eta Auzokideen artean harremanak bultzatzeko dinamika ere burutzen dira, horrela euskara zuzenean transmititzen da herritarren artean:

“Ariketa bat zen binaka jarri Auzotarra eta Auzokidea, eta Auzokideak galdetu behar zuen; zer da hau? Eta Auzotarrak erantzun, hau mahaia da. Joku polita da ze binaka daude eta...”.<sup>25</sup>

Sortzen diren harreman horiek gainera, aurreiritziak apurtzen laguntzen du, kultura desberdintasunetatik gain pertsonak baitaude. Eta pertsonak zuzenean ezagutuaz, jendartearen zabaldua dauden aurreiritziak gaitzen laguntzen du Auzokok:

“Gure aurreiritziak batez be apurtzen dira beste kulturak ezagutzen dugunean eta batez be gure kultura be bultzakada edo transmititzen dugu”.<sup>26</sup>

“Nik nauzkan prejuizio horiek ez... eta bapaten zaplazteko bat ematen dizue denak. Hemen pertsonak daude, ta denetik egongo da”.<sup>27</sup>

Eta sortzen den harremana aldebikoa da, aberasgarria parte hartzaile guztientzako:

“Iruditzen zait dala aldebikoa, bi norabidekoa. Osea gu beraiekiko eta beraiek gurekiko”.<sup>28</sup>

Auzoko egitasmoa martxan jarri berria bada ere, harreman sakonak sortzen ari dira eta horrek agerian uzten du egitasmoaren potentzialitatea eta hizkuntza egitasmo batetik haratago doala:

“Ni jendea ezagutzen ari naiz ta beraien ateak ireki dizkirate ta... lagun berriak esango det. Osea ia lagunak... kuadrila oraindik ez baino laster...”.<sup>29</sup>

**Euskara ukatzen duten jarrera paternalistek, desberdintasun soziala bultzatzen baitute. Izan ere, etorkizuneko hizkuntza izango bada, jendarte kohesioa eta berdintasun soziala bultzatzeko faktore garrantzitsua da euskaraz jakitea.**

Auzokideen artean ere harremanak politak sortzen ari dira potentzialtasun horren adierazle:

“Lagun taldeak sortzen ari dira. Gainera argazki txikiak dira baina, behin geunden hemen eta sahararrak zeuden eta etorri zian senegaldarrak ta batek besarkatu zun sahararra eta esan zion aupa Sahara... azkenen hori laguntasuna da ez... ez da euskaldunok lagun egiten ari geala etorkinekin ez... beraien artean ere lagunak egiten ari dira eta hori haruntzago doa...”.<sup>30</sup>

Harreman horiek azaltzen digute buruan izan ditzakegun eskema mentalak ez direla baliagarri eta sailkapenak egiteak arriskuak ekartzen dituela bere baitan:

“Afrikar danak berdinak izango balia bezala...”.

Jendartean zabaldurik dagoen uste zabaldu bati buelta ematen has-teko une izan daiteke:

“Zailtasuna norberaren baitan dago. Lau hizkuntza hitz egiten ditut, eta ez zait bat bestea baino zailagoa egin. Hizkuntzak ikasteko zure motibazioa da gakoa. Nahi izatea ahal izatea da”.<sup>31</sup>

Beraz, motibazioan jarri beharko genuke indarra eta horretarako eus-kara ikasteko arrazoi instrumentalak agerian utzi. Beraz, euskara (corpusa) ikasteko zaila denaren usteari aurre egin beharko zaio etengabean.

## **6. ZERGATIK PARTE HARTZEN DUTE?**

Aipatuko diren arrazoi eta motibazio hauek, parte hartzaile bakoitzaren baitan ulertu behar dira. Beraz, aldagai bat baino gehiago pilatu daitezke edota beste arrazoi batzuk ere egon daitezke. Auzokideei dagokienez, hauek dira parte hartzeko arrazoi-tako batzuk:

“Oso jende jatorra dago herrian, eta Auzokok haiengana hurbiltzen lagutzen dit”.<sup>32</sup>

“Beste hizkuntza dakien jendea, nik uste etortzen dala, ez euskara ikasteko, baizik eta, ez daukea komunikatzeko behar hori (...) Eskertzeue hola izatea ez, eskertzeue izatea jolas bat”.<sup>33</sup>

Harremanak bultzatzeaz gain euskarara hurbiltzeko bide egokia izan daiteke, bertako biztanleen hizkuntza den heinean:

“Ez bakarrik euskera ikasteko harremanak lantzeko eta hemengo jendia ezagutzeko, hemengo ohiturak ezagutzeko, hemengo jendeak azaldutako gauzak, juten zarenean leku berri batera gustatzen zaizu bertako jendearekin egotea ezta? Neri behintzat... askoz ere hobeto egoten zara”.<sup>34</sup>

Eta hurbilpenerako euskara garrantzitsua izan daiteke, muga guztiak eraisteko giltza eraginkorra izan daitekeelarik, herri euskaldunetan behinik behin:

“Pentsetan daurielako euskerakin gizartean barneratuago egongo diela...”.<sup>35</sup>

“Bai herri euskalduna dalako eta ikusten dabe jendea komunikatzen dala euskaraz, harremanetan sartzeko ikusten dabela ba euskera inportantea dala, orduan bai giltza edo hurbilketa hori egiteko garrantzitsua da...”.<sup>36</sup>

Auzotarrei dagokienez, bi arrazoi hauek dira aipatuenak; euskarari beren ekarpena eman nahi dietelako eta beste kulturak ezagutzeko jakin nahia dutelako:

“Gustau itten jakolako beste kultura batzuk ezautzea eta holan eta beste batzuk(...) nolabait aberasteko aukera ikusiko dauelako eta euskaldun sensible moduen ikusiko dauielako erantzukizun bat badaukiela...”.<sup>37</sup>

“Hona etorri diren Auzotarrak prest zeuden elkartzeko, euskaraz irakasteko, gure kultura irakasteko, eta gero ere gu prest geunden beraien kultura eta hizkuntza ezagutzeko, orduan bai haien ustez baliagarria da”.<sup>38</sup>

Hasierako bi arrazoi nagusi horiei, gaur egun, Auzokon parte hartu ondoren, beste bat gehitu ahal zaio; ondo pasatzea.

“Nik uste oraintxe bertan ondo ari dialako pasatzen, gero euskerai ere bere aportazioa egin nahi dietela bai baino nik ustet jendea ezagutzeko gogoan daukate, osea kuriosidade hori badaukate, ain ondo pasatzen dutenez...”.<sup>39</sup>

## 7. ONDORIOAK

Lerro hauek erakutsi digute, Auzokok ausardiaz eutsi diola euskara eta aniztasunaren gaineko gaiari eta praktikan ipini duela. Euskara guztiona den heinean, inori ezin zaio bidea itxi. Auzokok erakutsi digu, aukera eman zaion pertsona ugari, aukera baliatu duela. Zein da nor pertsona bati bertako eta berezko hizkuntza ikastea ukatzeko? Euskarak muga guztiak eraisteko, jendarte honetan beste bat gehiago izateko au-

**Harreman bide horizontalari esker, bi noranzko komunikazioa sustatzen ari da. Horrela, euskararen egoeraren berri zuzenean emateaz gain, beste kulturak eta pertsonen errealitateak zuzenean ezagutzen dira.**

kera eman dezake. Berdintasuna bultzatzeko beraz, euskara pertsona orori eskaini behar zaie. Pertsonak erabaki behar dute, hautu pertsonala izan behar da. Euskara ukatzen duten jarrera paternalistek, desberdintasun soziala bultzatzen baitute. Izan ere, etorkizuneko hizkuntza izango bada, jendarte kohesioa eta berdintasun soziala bultzatzeko faktore garrantzitsua da euskaraz jakitea.

Kultura aniztasuna nola kudeatu? Etnozentrismotik ihes egitea garrantzitsua da, beste kulturak aurre epaitu gabe jardutea. Aurreiritziak puskatzeko beste kulturetako pertsonekin harremantzea ezinbestekoa da. Auzokok erakutsi digu harremanen gabezia bat dagoela, euskaraz gaindiko funtzio sozialak bultzatzen dituen neurrian. Pertsonak erdian ipiniz, egon daitezkeen kultura ezberdintasunak erlatibizatzen dira, pertsonak ezagutzen dira zuzenean eta harreman parekideak bultzatzeko oinarriak jartzen dira. Auzokoren bertute nagusienetakoa horixe da, harreman pertsonalak bultzatzen dituela.

Harreman bide horizontalari esker, bi noranzko komunikazioa sustatzen ari da. Horrela, euskararen egoeraren berri zuzenean emateaz gain, beste kulturak eta pertsonen errealitateak zuzenean ezagutzen dira. Komunikazioa bi noranzkoa den heinean alderantzizkoa ere gertatzen da, noski. Baina harantzago ere badoa, izan ere Auzokideen artean ere harremanak sustatzen baitu, Auzokoren funtzio soziala indartuz.

Auzoko egitasmo ireki bat da, edonork parte hartu dezake eta gainera parte hartzea benetakoa da, parte hartzaile guztiak subjektu aktibo diren neurrian. Horretarako, eremu informala bultzatzen da, aisialdirako ekintza hezitzailea izan daitekeelarik. Izan ere, kultura aniztasuna bermatzen duen zer nolako aisialdi aukerak daude herrietan?

Topagunerako, uneak eta guneak egon behar dute, harremana bultzatzeko eta euskara sustatzeko uneak eta guneak. Auzokok ludikotasuna bultzatzen du, denok jolasten dakigula premisapean. Horrela, euskara barneratze prozesua (gerturapen prozesua) ondo pasatzearekin lotzen da.

Euskararen egoera gutxiagotua lekuko, ezezagunari oro har gazte-leraz egiten diogu eta horretan ere kontzientziazioa lantzen du Auzokok. Euskaldunok euskaraz egiten ez badugu, euskara garrantzitsua ez dela plazaratzen ari gara eta euskararen berreskurapenean eredu izan behar dugu. Izatean baino gehiago egitean erdiratu beharko genuke. Halere, egoera soziolinguistikoak kontuan hartu behar dira. Izan ere, hauek asimetrikoak direnez euskaraz bizitzeko aukera gehiago dago eremu batzuetan.

Euskara zaila denaren ustea hautsi behar da, motibazioa da gakoa. Motibazioa bultzatzeko euskara ikasteko arrazoi instrumentalak agerian jarri beharko lirateke.

Auzoko taldeetan, entzumena lantzeaz gain errepikapena bultzatzen da, horrela hizkuntzak murduskatuz barneratzearen aldeko hautua egin da. Hizkuntza aniztasuna dagoen neurrian, alfabeto aniztasuna egon daiteke eta horrexegatik idatzizko “ikasketa” baino “ikasketa” zuzena bultzatzen da.

Kultura aniztasuna (eta ondorioz hizkuntza aniztasuna) kontzeptu gisa aukeratzeak, ikuspegia zabaltzen laguntzen du, eta bide batez euskaldunok ere aterki horren barruan sartzen gara, subjektu aktibo bilakatuz. Etorkin edota immigrante kontzeptuarekin *haiek / gu* dikotomia bultzatzeaz gain, zalantzak sortzen dira jendartean dauden us-teen baitan (Zein dira etorkinak? Etorkinen seme alabak ez dira etorkinak. Ijitoak ez dira etorkinak). Hortaz, kultura aniztasuna hartu da oinarri, baina jakinik migrazio prozesuak izan direla aniztasunaren oinarri. Migrazio mugimendu “berriak” kontuan hartu behar dira migrazio mugimendu “zaharrak” kontuan hartuz. Fenomenoaren arrazoiak kontuan hartu behar dira eta pertsona hauen baitako testuinguru eta errealitateak aintzat hartu.

Aniztasunak euskararen baitako kontraesanak azaleratzen ditu. Izan ere, egoera gutxiagotu batean dagoen neurrian, hizkuntza aniztasun errealitate honek, euskarak duen eta izan behar duen lekuaz hausnartzera behartzen gaitu. Beraz, euskararen gainean birpentsatu beharko da halabeharrez.

Hizkuntza aniztasuna aliatu gisa hartzen du Auzokok, elebitasunaren ordezkoko gisa. Euskara kohesio eta komunikazio hizkuntza izatea du helburu. Horretarako, beste kulturak eta hizkuntzak onartzea oinarritzotzat hartzen du, beste kulturetako herritarrengana hurbiltzeko eta euskara bultzatzeko estrategia gisa. Kultura gutxiagoturiko herritar-rrak aliatu ezin hobeak izan ahal dira, beraiek bizi izan duten egoera, gurekin parekatu dezaketelako eta alderantziz.

Euskalduna euskara duena bada, euskara ikasiz integrazio zuzena lortuko litzateke. Nahikoa al da? Ez al da hori urteetan transmititu den ideia? Froga dezagun, denok irabaziko dugu, euskarak irabaziko du.

Auzokok erakutsi digu, ikerketa edota teoria orokorrek, praktika behar dutela aurrera egiteko. Ekin behar zaio, kale egiteko, ikasteko, aurrera egiteko. Bulegoetatik kalera jaitsi behar dugu. Kalea umezurtz dago, harremanak hotz samar, eta beharbada hortik hasi beharko genuke, kalea irabaziz eta herritarrengana gerturatuz. ●

---

**Hizkuntza  
aniztasuna aliatu  
gisa hartzen du  
Auzokok,  
elebitasunaren  
ordezko gisa.  
Euskara kohesio  
eta komunikazio  
hizkuntza izatea  
du helburu.  
Horretarako,  
beste kulturak  
eta hizkuntzak  
onartzea  
oinarrizkotzat  
hartzen du.**

## **BIBLIOGRAFIA**

### **Ikerketa diseinu txosten honetan oinarritu da**

UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Maider (2010).

*“Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena”* (argitaratu gabe). Topagunea

### **Diseinu txosteneko bibliografia**

ARRUTI, Iñaki. *“Euskara elkarteak. Oraina eta geroa”*. Larrun aldizkaria. 122 zenbakia.

IV. INKESTA SOZIOLOGIA (2008). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz.

DELGADO, Manuel (2007). *“Sociedades movedizas. Pasos hacia una antropología de las calles.”* Anagrama, Barcelona.

GARCIA, Joxerra. *“Euskararen eskale eta jarrera negartia egitetik nahi-koa dugu”*. Berria egunkaria, elkarrizketa. 2007ko irailaren 20a.

JUNYENT, Carme (2002). *“Gymkhana de les Llungües”*. Octaedro, Barcelona.

JUNYENT, Carme (1996:37-48). *“Hizkuntzen Bizitza eta Heriotza”*. Bat Soziolinguistika aldizkaria 19.zk.

JUNYENT, Carme. *“Elebitasuna apurtu behar da etorkinen hizkuntzekin”*. Argia aldizkaria. 2008ko uztailaren 6a. 2144. Alea.

JUNYENT, Carme. *“Hizkuntza berriek euskarari lekua berreskuratzen lagun diezaiekete”*. Berria egunkaria, elkarrizketa. 2008ko maiatzaren 24a.

JUNYENT, Carme. *“Immigrazioak mesede egiten die katalana edo euskara bezelako hizkuntzei”*. Argia aldizkaria, elkarrizketa. 2005ko otsailaren 20a. 1980. Alea.

MARTINEZ DE LUNA, Iñaki eta SUBERBIOLA, Pablo. *“Measuring Student Language Use in the School Context”*. Language, Culture and Curriculum, 59-68 orrialdeak. Vol. 21, No.1. 2008.

SUBERBIOLA, Pablo. *“Hizkuntzen garapen iraunkorra... Gero eta ukipen gehiagoko mundu baterako”*. Eralan proiektuko lan-topaketa. Andoain 2.008ko abenduan.

UNZURRUNZAGA, Agustin. *“Euskara eta Immigrazioa”*. Bat Soziolinguistika aldizkaria. 52 zbk. 2004ko iraila.

### **Bibliografia osagarria**

ALBITE, Pedro (2008). *“Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak”*. *“Immigrazioa Euskal Herrian”*, Jakin aldizkaria. 165 zenbakia.

HARVEY, Penelope (1987), *“Lenguaje y relaciones de poder: Consecuencias para una política lingüística”* (15-131 orr.). Allpanchis. Lengua, nación y mundo andino liburuan, Nos. 29/30 Año XIX, Cusco, Instituto Pastoral Andino.

- HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren (2007a), “Repensar la transmisión”.
- HERNÁNDEZ GARCÍA, Jone Miren (2007b), “Transmisión y cronotopos de la negación en el contesto sociolingüístico vasco” (285-339 orr.). Euskara, comunidad e identidad: elementos de transmisión, elementos de transgresión liburuan, Madril, Ministerio de Cultura.
- HERNÁNDEZ GARCIA, Jone Miren (2010), “Hizkuntzak aztergai: ikerketa-metodoetara oinarritzko hurbilpena”. “Soziolinguistika eskuliburua”, Soziolinguistika Klusterra.
- LAMINE GUEYE, Mohamadou. Elkarrizketa. Bizkaiko Hitza. 2010ko abenduaren 24a.

### **Webgrafia**

- [www.auzoko.topagunea.com](http://www.auzoko.topagunea.com)  
[www.behatokia.org](http://www.behatokia.org)  
[www.euskaraz.net/](http://www.euskaraz.net/)  
[www.soziolinguistika.org/edb](http://www.soziolinguistika.org/edb)  
[www.unesco.org/culture/languages-atlas/index.php](http://www.unesco.org/culture/languages-atlas/index.php)  
[www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)

### **OHARRAK**

1. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:5). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
2. Dinamizatzailea 1.
3. Dinamizatzailea 3.
4. Dinamizatzailea 4.
5. ALBITE, Pedro (2008:41). “Migrazioak, kultura-aniztasuna eta estaturik gabeko nazioak”. “Inmigrazioa Euskal Herrian”, Jakin aldizkaria. 165 zenbakia.
6. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:6). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
7. Dinamizatzailea 6.
8. Dinamizatzailea 1.
9. LAMINE GUEYE, Mohamadou. Elkarrizketa. Bizkaiko Hitza. 2010ko abenduaren 24a.
10. Dinamizatzailea 6.
11. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:8). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
12. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:8). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
13. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:14). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
14. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:15). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
15. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:14). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.
16. UNZALU ETXABE, Galder eta ELKORO GABILONDO, Mainer (2010:15). “Auzoko Egitasmoa, Diseinu Txostena” (argitaratu gabe). Topagunea.



17. Dinamizatzailea 2.
18. LAMINE GUEYE, Mohamadou. Elkarrizketa. Bizkaiko Hitza. 2010ko abenduaren 24a.
19. Dinamizatzailea 2.
20. Dinamizatzailea 5.
21. Dinamizatzailea 2.
22. Dinamizatzailea 3.
23. Dinamizatzailea 4.
24. Dinamizatzailea 2.
25. Dinamizatzailea 4.
26. Dinamizatzailea 3.
27. Dinamizatzailea 2.
28. Dinamizatzailea 5.
29. Dinamizatzailea 2.
30. Dinamizatzailea 2.
31. LAMINE GUEYE, Mohamadou. Elkarrizketa. Bizkaiko Hitza. 2010ko abenduaren 24a.
32. LAMINE GUEYE, Mohamadou. Elkarrizketa. Bizkaiko Hitza. 2010ko abenduaren 24a.
33. Dinamizatzailea 2.
34. Dinamizatzailea 3.
35. Dinamizatzailea 1.
36. Dinamizatzailea 3.
37. Dinamizatzailea 1.
38. Dinamizatzailea 4.
39. Dinamizatzailea 2.